

## **2. IKASGAIA GANBIO-LETRA SORTZEA**

### **Laburpena**

1. SARRERA
  - 1.1 Ganbio-letraren sorrera eta bilakaera
  - 1.2 Gaur egungo erabilera
2. ZUZENBIDE GANBIARIOA
3. DERLARAZIO GANBIARIOAK
  - 3.1. Izaera juridikoa, funtsa eta ondorioak
  - 3.2. Gaitasun ganbiarioa
  - 3.3. Ordezkapen ganbiarioa
4. GANBIO-LETRA IGORTZEA, FORMAZKO UKANBEHARRAK
5. IGORPENAREN INGURUKO GORABEHERAK
  - 5.1. Formaltasunen inguruko gorabeherak
  - 5.2. Faltsutasuna eta faltsifikazioa
  - 5.3. Ganbio-letraren anizketa eta beste dokumentu batzuk
  - 5.4. Amortizazioa

### **I. GANBIO-LETRAREN BILAKAERA ETA EGUNGO ERABILERA**

#### **1.1 Ganbio-letraren sorrera eta bilakaera**

Erdi Aroan ohikoa zen plazetan moneta desberdinak aurkitzea, merkatariak hiri desberdinetakoak zirelako. Ondorioz, bankari edo ganbistek moneta-ganbiozko negozioak egiten zituzten: moneta batzuk jaso eta trukean balio bera zuten beste batzuk entregatu. Baina piskanaka, hirien arteko merkataritzan, dirua garraiatzearen zailtasunak eta arriskuak galeraztearren eta aipatutako truke hori errazteko dokumentu berezi batzuk erabiltzen hasi ziren.

Hasiera batean (XII, XIII mendetan), hiri desberdinen arteko moneta-trukeak burutzeko bi dokumentu egiten ziren bankaria eta merkatariaren artean.

Dokumentu batean bankariak merkatoriarengandik diru-kopuru bat (*'valuta'*) jaso izana aitortzen zuen (*'jaso dut', 'recibí'*) eta adierazitako plazan ordainduko zitzaionaren obligazioa hartzen zuen (*'ordainduko dut', 'pagaré'*). Promes hau idatziz adierazten zen, notari baten aurrean. Honekin batera bigarren dokumentu bat egiten zuen bankariak (igortzaileak). Gutun pribatu bat idazten zuen beste hiriko bankari kide batentzat (igorpenduarentzat), hari ordainketa aginduaz edo delegatuaz. Bertan zera esaten zion: *'nire aginduz ordaindu halako diru-kopurua merkatori honi'* eta *'ordaindu merkatori honek agintzen dizunean'* (*'honen aginduz', 'a la orden'*).

Dokumentu hauekin merkatoriak nolabaiteko arriskua jasaten zuen, emandako diruaren orde paper bat besterik jasotzen ez zuelako. Orduan atzerrian beste banakariarengandik ordainketarik lortuko ez balu, klausula hauek merkatoriari lehenengo bankariaren aurka ekiteko oinarria ematen zioten. Eragiketa hauetan obligatu bakarra lehenengo bankaria zen. Merkatoriak atzerriko plazan ordainketarik lortzen ez bazuen, jatorriko plazara itzultzerakoan (atzerabidean) akzioa jartzeko aukera zuen, dirua (balioa, *'valuta'*) jaso zuenaren aurka (igortzailearen aurka), bere obligazioa ez betetzeagatik. Ikus daiteken bezala, garai honetan baluta zen negozioaren kausa eta erantzunkizun horren oinarri.

Gerora (XIV mendean), jatorrizko bi dokumentu hauek bakar batetan batu ziren. Bigarren dokumentuak, gutun pribatuak, lehenengoa barneratu zuen notariaren beharrik izan gabe. Dokumentu berri honetan, ordainketa-aginduarekin batera agertzen zen igortzaileak diru-kopuru bat jaso izanaren aitortpena, bere sinadurarekin. Horrela, dokumentuak edukitzaileari atzerabidean igortzailearen aurka jarduteko modua ematen zion.

Aurrerago (XIV mendean) garrantzi handiko beste klausula bat agertu zen, *'onarpena'*, alegia. Ordura arte obligatu bakarra igortzailea zen, gutunaren sinatzaile bakarra. Bankari igortzailea eta bigarren bankari lagunaren arteko harremana (fondoan hornidurazko harremana) ez zen dokumentuan agertzen, negozio ganbarioarekiko independientea zen. Horregatik bigarren bankariak ez zuen dokumentuaren edukitzailearekiko erantzunkizunik. Berak ordainduko ez balu, merkatoriak jatorrizko lekura itzuli behar zuen (atzerabidean) arazoa konpontzera. Oro har, ganbio-letrak ordaintzeko epemuga azoken azken egunean izaten zen. Beraz, ordura arte, merkatariek ez zuten jakiten zihur ordainketa lortuko zuten ala ez. Egoera hau saihestearren, azken eguna iritsi aurretik, merkatariek bigarren bankariarengana jotzeko ohitura hartu zuten,

ganbio-gutunean adierazitako kopurua ordaintzeko konpromezuaren bila eta, baiezkotan, bankariak ganbio-gutunaren gainean sinatzen zuen onarpena. Honek ganbio-gutunari abantaila handi bat ekarri zion. Bigarren bankariak ordaintzea ukatuz gero jada ez zen beharrezkoa jatorrizko bankariarengana itzultzea erreklamazioa egitera, bere sinaduraren bidez obligatu bihurtu bait zen.

Garapenaren hurrengo urratsa ‘*endosua*’ izan zen (XVII. mendean). Endosuaren bidez, merkatariak bere sinadura ipiniaz, zera egin zezaken: kreditua kobratzeko mandatari bat izendatu edota letran adierazitako kreditua beste pertsona bati transmititu. Pertsona berriaren (endosu-hartzailearen) izena gutunaren atzekaldean adierazten zen (*en dorso*) eta bere egoera autonomia zen endosua egin zionarekiko. Hau da, gutuna kobrurako aurkezten zuenean zordunak ezin zion alegatu aurreko edukitzailearen aurka (endosugilearen aurka) izan zezakeen *exceptio* edo salbuespenik.

Endosuaren klausulak ganbio-letran aldakuntza handia ekarri zuen, aurrerantzean ordainketak egiteko tresna bilakatu bait zen. Merkatari batek beste norbaiti (jatorrizko negozioarekin zerikusirik ez zuen bati) dirua zor zionean (adibidez, salerosketa betegatik, aurretik dirua jaso izanagatik) posible zuen zorraren ordainketa ganbio-letra bidez egitea. Era honetan, piskanaka, ganbio-letra kredituzko tresna moduan erabiltzen hasi zen. Ikusi dugun bezala, ganbio-letrak jatorrian hirien arteko ordainketak egiteko funtzioa betetzen bazuen ere, garpenaren ondorioz kredituzko tresna bihurtu zen eta XX.mendean epe laburreko kreditu-instrumentu bezala erabili zen, bai merkataritzan arloan bai eta finantza arloan ere.

## 1.2 Gaur egungo erabilera

XX.mende amaieran ganbio-letraren erabilpena izugarri murriztu zen, krediturako beste tresna batzuren erabilerarengatik. Gehiago erabiltzen dira zor-agiria eta txekoa, baina bi horien oinarriak ganbio-letran aurkitzen dira. Gaur egun, ganbio-letrak, baita zor-agiria eta txekuek ere, erabiltzen dira ordainketak egiteko, kreditua emateko eta berme gisa.

Ganbio-letren artean ohikoa da ‘letra komertzialak’ eta ‘letra finantziarioak’ bereiztea. ‘Komertzialak’ dira salmenta edo zerbitzu bat egitetik sortutako zorrak ordaintzeko igortzen direnak. Gehienetan eragiketa honi beste harreman bat

gehitzen zaio, deskontu bankarioa. Horrela saltzaileak edo zerbitzu-emaileak, prezioa kobratzeko itxaron beharrean, deskontu-kontratuaren bidez ganbio-letra bankuari entregatu eta bankuak zenbatekoa aurreratuko dio, komisio edo interes bat kenduaz. Orduan bankua izango da ganbio-letraren edukutzailea eta ordainketa jasotzeko eskubidea izango duena. Ganbio-letraren mugaeguna iritsitakoan igorpenduak bankuari egin beharko dio ordainketa.

Ganbio-letrak 'finantzieroak' direnean, berriz, ganbio-letra igortzearen kausa kreditua ematea izaten da. Batzuetan banku batek ematen dio kreditua bezeroari. Kasu hauetan, igortzailea bankua izaten da eta bezeroa (igorpendua) ordainketa egitera behartzen da onarpena eginez. Horretaz gain, bankua hartzailea izan ohi da eta letrak ez du gehiago zirkulatu. Beste batzutan bankua soilik hartzaile bezala agertzen da eta beste pertsona bat izaten da igortzaile moduan sinatzen duena. Honela, kopurua ordaintzen ez bada, bankuak, onartzailearen eta igortzailearen aurka ekin dezake. Textuinguru honetan kokatzen dira 'mesedeko letrak'.

Hala ere, ganbio-letrek izaten dute beste funtzio bat, eragiketa batzutan berme bezala ere erabiltzen dira. Hau, sistema ganbiarioaren zorrotasunagatik gertatzen da. Sistema honek fede onez letra eskuratzen duen hirugarrenari babes berezia ematen dio. Letra edukitzeak legitimazioa ematen duenez, kreditu-eskubidearen titulartasuneko froga erraztu egiten zaio bai hartzekodunari (LCCh 19.1 art.) bai eta zordunari ere nori ordaindu behar dion jakiteko (LCCh 46.III art.). Gainera, *exceptio doli* jazo ezik, zordunak hartzekodunari ezin izango dizkio aurka jarri letra sortzearen edo transmititzearen kausa izandako negozioen inguruko gorabeherak (LCCh 20. eta 67. art.). Amaitzeko esan beharra dago ere ganbio-letra kobratzeko prozedura berezi bat dagoela, judizio ganbiarioa (LEC 819. art. e.o.) eta prozedura horretan hartzekodunak epaileari aitzin-neurri moduan zordunaren ondasunen enbargua agintzea eska diezaioke. Guzto horrel ganbio-letra berme gisa esrabilitzea eragiten du.

Gaur egun, ganbio-letra tresna bankariotzat har dezakegu, bankuetan burutzen baitira deskontu kontratuak eta kobrua lortzera bideratutako gestioak. Gainera legeak letraren ordainketa bankuan helbideratzeko aukera ematen du (LCCh 5. art.). Informatikoki bidaltzen dira bere datuak ordaindu behar duen bankura eta, konpensazio-sistema bati esker, ordainketa egiten da. Bankuek ordainketa

egiten dutenean ganbio-letra itzului irdez erreziro bat ematen dute (LCCh 45.I art.).

Baina onartzailearen sinadura lortzea erraza ez denez eta ganbio-letra tinbrezergari lotua egonik (*Impuesto de transmisiones y actos jurídicos documentados*) bere erabilpena izugarri murriztu da. Bere orde, gehiago erabiltzen dira bestelako agiriak, erreziroak. Bertan, zenbateko bat eskuratua izan dela adierazten da, eta bere ordainketaren gestioa banku bati ematen zaio. Bankuak, kobrua aurreratzen du deskontu-kontratu baten bidez.

## 2. ZUZENBIDE GANBIARIOA

Europar zuzenbide ganbiarioan bi sistema nagusitu izan dira, bata frantziarra eta bestea alemaniarra. 1.807.ko frantziar Merkataritza Kodeak XVII. mendeko zuzenbidea jaso zuen (Colberten ordenantzakoa), ganbio-letra bere igorpenaren kausa izandako kontratuari lotuta agertuaz. Ez zuen kreditu-eskubide abstraktu bat adierazten. Azpiko kontratuaren frogaz izaten jarraitu zuen eta haren gorabeherak eta letrarenak elkarturik zeuden. Aldiz, 1848.ko Alemaniako Aduana-batasunaren Ganbio-ordenantza (*Allgemeine Deutsche Wechselordnung, ADWO*) ganbio-letra negozio abstraktu moduan ageri zaigu, hau da, bere igorpena eragin zuen negozioarekin harremanik gabe. Sistema honek ganbio-letrak sortutako itxura juridikoa babesten zuen. Italiak ere Alemaniar sistema hau bereganatu zuen 1882.ko Merkataritza Kodean. Bereizketa honetetik at agertzen da, ordea, Erresuma Batuko legea '*Bill of Exchange Act*' (1882).

XVIII. mendez geroztik, ganbio-zuzenbide uniforme baten beharra nabarmena izan zen nazioarte mailan. Ganbio-letra nazioartean zehar zirkulatzeko egin dago eta estatu bakoitzeko legedi desberdinek oztopo handia jartzen zioten. Horregatik araudien bateratze prozesuari ekin zitzaion. 1908an hasitako prozesu honen emaitza izan ziren nazioarteko bi hitzarmen: 1930.ko 'Genebako Lege Uniformea', ganbio-letra eta zor-agiriari buruzkoa, eta 1931ko txekiar buruzko hitzarmena. Bertan jasotzen dira titulu hauei buruzko arau orokorrak, bakoitzari dagozkion arau bereziak eta 'erreserbak', Estatu bakoitzak bere zuzenbidean sar ditzaken salbuespenak.

Oro har, hitzarmen hauen emaitzak goraiatzeko modukoak dira. Estatu partaideek Lege Uniformea barneratzeko hitza eman zuten eta lege

desberdinak aplikatzerakoan sortzen diren gatazkak gutxitzea lortu da. Baina Estatu batzutako lege eta printzipio juridikoak Genebako sistemarekin ez datoz bat eta honek arazoak sortu zituen Genebako sistema juridikoa barneratzeko. Europan bi sistema nagusi ziren, alemaniarra eta frantziarra, eta Genebako batzarrean alemaniar sistema jarraitzeko erabakia hartu zen. Hau pairatzeko, 'erreserbak' egiteko bidea erabili zen. Honela, Estatu bakoitzak, bere sisteman oso oinarrituta zeuden printzipioak mantendu zituen eta zuzenbide uniformearen onarpenak ez zuen arazo larririk sortu (adibidez, Frantziar estatuak erreserba guztiak sinatu zituen eta beste estatu batzuek, berriz, erreserbarik gabe berretsi zuten textua).

Espaniar estatuari dagokionez, Genebako akordioak sinatu zituen baina ez ditu inoiz berretsi. Merkataritza Kodearekin jarraitu zen eta baiespenaren ordeztan *Ley 19/1985, de 16 de julio, cambiaria y del cheque (LCCh)* egin zuen. Lege honek 1930.eko Genebako Lege Uniformea hartu zuen eredutzat, bere arauak zuzenean barneratu zituen, zenbait artikulua eta xedapen literalki jasoaz.

### 3. DERLARAZIO GANBIARIOAK

Deklarazio ganbiarioak sinadura bidez egiten dira eta sinatzaileak ganbio-letran adierazitako zenbatekoa ordaintzeko obligazioa hartzen du. Deklarazio garrantzitsuena, funtsezkoa, igortzaileak egiten duena da, igorpena, hau gabe ez bait da ganbio-letrarik sortzen (LCCh 1.art.). Gainontzeko deklarazioak (onarpena, endosua, abala, e.a.) ez dira beharrezkoak, osagarriak baizik.

#### 1. Izaera juridikoa, funtsa eta ondorioak

Obligazio ganbiarioa *abstraktua* dela esan ohi da. Horrek esan nahi du independentea dela ganbio-letra sortzearen kausa izan den obligazioarekiko (obligazio kausalarekiko). Dena den, afirmazio hau zehaztu beharra dago *inter tertios* eta *inter partes* diren harremanak bereiztuaz. *Inter tertios*, obligazio ganbiarioa benetan *abstraktua* da, hau da, azpiko harreman kontraktualean parterik hartu ez duenak ez du zertan haren gorabeherarik jasan behar izango. *Inter partes* aldiz, obligazio ganbiarioa *kausala* dela esan dezakegu, azpiko harreman kausaleko gorabeheren menpe geratzen delako. Kasu honetan, zordun ganbiarioak hartzekodun ganbiarioari beren arteko kontratu kausaletik eratorritako (exceptio) salbuespenak aurka jarri ahal izango dizkio.

Gainera, deklarazio ganbiarioen izaera juridiko berezia dela eta, letrako obligazioen batek akatsen bat sufritzen duenean, beste obligazioek ez dute baliorik galtzen. Hots, igortzailearen obligazioa deuseza izan daiteke, baina horregatik ez da deuseza izango onartzailearen obligazioa. *Obligazio ganbiarioen autonomia* deritzon printzipioaz ari gara (LCCh 8.art.).

Esan bezala, ganbio-letra sinatzea ondorio juridikoak dituen egintza bat da. Baina egintza horren funtsa eta ondorioak desberdinak dira *inter partes* eta *inter tertios*. *Inter partes*, obligazio ganbiarioa sortzen da ganbio-letra sinatu eta batak besteari entrega eginez. *Inter tertios*, berriz, obligazio ganbiarioa sortzen da sinaduraren bitartez. Hau honela izanik, sinatutako ganbio-letra sortzeko (sinatzeko) borondatearen inguruko akatsak *inter partes* aurka jarri ahal izango dira baina ez, ordea, fede oneko hirugarrenaren aurka. *Inter tertios* obligazio ganbiarioaren funtsa eta ondorioak ulertzeko itxura juridikoaren oinarrietara jo behar dugu. Horiek azaltzen bait dute sistema ganbiarioak fede oneko hirugarrenari ematen dion babes berezia. Lau dira itxura juridikoa osatzen duten elementuak. Lehenengoa itxurazko egoera objektiboa, hau da, ganbio-letra berbera, honek kreditu-eskubide bat adierazten du. Bigarrena, trafikozko negozioa izatea da, hirugarrenak kostubidezko negozio bidez eskuratu behar du letra, ez dohainik. Hirugarrena, tartean fede oneko hirugarren pertsona bat egotea da. Ganbio-letra hirugarren baten eskutara iritsi behar du eta eskuratze prozesu horrek fede onekoa izan behar du. Hirugarrenak ez du letraren entrega-kontratuaren inguruan egon den akatsik edo gorabeherarik ezagutu behar. Azkenik, laugarren elementua egozgarritasuna da, zordunari egozgarri izan behar zaio itxurazko egoera objektiboa eta hala izango da, ganbio-letran bere sinadura ipintzen duenean.

### 3.2. Gaitasun ganbiarioa

Deklarazio ganbiarioa baliozkoa izan dadin, gaitasuna duen pertsona batek egindakoa izan behar du. Sinatzaileak gaitasuna izan behar du derrigorrez. Honela ez bada, akats hori, gaitasun eza, edonoren aurrean (*erga omnes*) aurka jarri ahal izango da. *Inter partes* konsentimentuzko akats bat dago, borondaterik eza letra sinatu eta entrega egiterakoan, eta *inter tertios* ere obligazioa sortzeko elementu bat falta da, egozgarritasuna, alegia.

Hemen bi interes pribatu desberdinen arteko gatazkarekin topo egiten dugu. Batetik, trafikoaren babesa dago, fede oneko hirugarrenaren babesa, baina,

bestetik, gaitasunik ez duena ere babestu beharra dago. Zuzenbidean azken hau da nagusitzen dena. Zuzenbide ganbiarioan jarduteko gaitasunaren inguruan arau berezirik ez dagoenez, Kode Zibileko arau orokorrak aplikatuko dira eremu honetan.

Lehen esan bezala, obligazio ganbiarioen autonomia dela eta, obligatu ganbiario baten gaitasun ezak (igortzailearena izanda ere) ez ditu letrako beste deklarazio ganbiarioak baliogabetzen. Baina gaitasungabeak bere akatsa edonori aurka jarri ahal izango dio (LCCh 8.art.).

### 3.3. Ordezkapen ganbiarioa

Deklarazio ganbiarioak ordezkeri bidez ere egin daitezke. Hala jardutea borondatezkoa izango da pertsona naturalentzat eta nahitaezkoa pertsona juridikoen kasuan. Horretarako beharrezkoa da ahalordea izatea (LCCh 10. art.) eta ahalordez jarduten denaren adierazpena egitea dokumentuan (LCCh 9. art.).

#### **Ahalordea izatea**

Ahalordea izatea beharrezkoa da. Ahalorderik gabeko norbaitek (*falsus procurator*) ordezkeri moduan sinatzen duenean, norena izango da erantzukizuna? *dominus* delakoa faltsuki ordezkatua izan bada, ganbiarioki honek ez du inongo erantzukizunik izango. Bera eta dokumentuaren artean ez dago loturarik, ez dago egozgarritasunik, berak ez du ezer egin obligazio ganbiarioa sortzeko. Erantzukizun ganbiarioa *falsus procurator* deiturikoarena izango da (LCCh 10.art.). Ondorio hau bat dator itxura juridikoaren oinarriekin baina KZ 1259.II artikulutik aldendu egiten da, honen arauz kontratua deuseza izango litzateke eta. Ondorioz, *falsus procurator* denak ganbio-letra ordaintzeko orduan, itxuraz ordezkatu izan duenaren eskubide eta (exceptio) salbuespen berberak erabili ahal izango ditu.

Beste arazo batzuk sortzen dira ahalordearen baliogabetzea edo mugatzea gertatzen denean, adibidez, ahalordea iraungi edo aldatu egiten bada. Itxura juridikoa babesten duten oinarriei so eginez, esan baharra dago publizitate egokirik egon ezean, itxuraz ordezkaritza badagoela suposatu beharko dela (erregistroa eta nabarizko faktorearen kasuan gertatzen denaren antzera, ik. MK 286.art.).



Ahalordearen mugak gaindituz jarduteak ere arazoak ekartzen ditu. Kasu honetan ordezkatuaren egozgarritasuna da bere erantzukizun ganbiarioaren muga, gainontzekoa berriz, ordezkariari egokituko zaio (LCCh 10.art. *in fine*). Baina hemen gogora ekarri behar da ahalordearen zenbait mugapen ezin direla hirugarrenen aurka ipini, esate baterako: nabarizko faktorearen kasuan, enpresaren *giro edo trafiko* barruan dagoena (MK 286.art.) edota sozietateetako administrazioen kasuan, estatutuetako *objektu sozial* barruan dagoena (LSC 234.I art.). Gainera, hauen inguruan presuntzio bat ezartzen du legeak, alegia, sozietateetako administrazioek beren izendapen hutsagatik ahalordea badutela uste izango da (LCCh 9.II art.). Hala ere, ganbio-letren hartzaile eta edukitzaile direnek sinatzaileei ahalordea erakus dezatela eskatzeko eskubidea dute (LCCh 9.III art.).

Ahalordearen abusua, hau da, *dominus*-aren interesen kontra jardun izana, (exceptio) salbuespen moduan ipini ahal izateko, ordezkariarekin jarduten duenak ezagutzeko modukoa izan behar du. Bestela ezin izango zaio aurka jarri eta *dominus*-a ordezkariak egindakoari lotuta geratuko da. Ezin izango da *inter tertios* erabili. *Inter partes*, gerta daiteke ahalordeari buruzko gorabeherak ezagutzea eta, orduan, gorabehera horiek (abusua adibidez) bai izan daitezke aurkagarri.

Badira beste kasu batzuk, pertsona imaginarioenak, erantzulerik gabeko egoerak sor ditzaketenak. Halako kasu batetan, adibidez, ganbio-letraren edukitzaileak igortzaileari galdetzen dio ea letra behar bezala beteta eta sinatuta dagoen eta honek baietz erantzuten dio, nahiz eta letrak benetakoa ez den ordezkari baten sinadura eraman. Igortzaile hori obligatu ganbiario al da? Batzuren iritziz erantzule ganbiarioa izango da. Baiezko erantzunak letran ageri ez den egozgarritasunezko lotura ezartzeko balio du. *Dominus*-ak *falsus procurator*-aren egintza berretsi egin du eta beraz, erantzule kontraktual (ganbiario) bihurtu da (KZ 1259. II. art.). Beste batzuren iritziz, aldiz, hau kontratuz kanpoko erantzukizuna da (KZ 1902. art.).

### ***Ahalordearen adierazpena (contemplatio domini)***

Bestalde, legeak ahalorde bidez jarduten denaren adierazpena egitea (*contemplatio domini*) galdatzen du (LCCh 9.I art.), hau da, adieraztea ordezkari izaera (ad. *ahalordez, p.p., p.o.*) eta ordezkatuaren izena (ad. enpresaren

zigilua). Legeak ez du inolako formazko galdapenik ezartzen, ordezkari bidezko deklarazio ganbiarioa baliozkoa izan dadin.

Sarritan gertatzen da pertsona batek beste baten ordezkari moduan jarduteko ahalordea izatea baina dokumentuan hala ari denik ez adieraztea. Zein ondorio dakar *contemplatio domini* erabat faltatzeak? Sinatzailea bera izango al da erantzule ganbiario? Galdera hauei erantzuteko oinarri juridikoak KZ 1717. artikuluan eta MK 246. artikuluan aurkitzen ditugu, itxura juridikoaren babeserako printzipioekin batera. *Inter partes*, agian, nahikoa da *contemplatio domini* extradokumentala edo tazitua, *dominus*-a ordezkariak hartutako obligazioarekin lotua gera dadin (adibidez, soluzio bera aplikatzen da nabarizko faktorearen kasuan, MK 286.art.). *Inter tertios*, *contemplatio domini* extradokumentalak ez du printzipioz *dominus*-a lotuko, baina ordezkariak agian froga dezake *contemplatio domini* horren existentzia eta orduan *dominus* obligatu ganbiario izango da. Ikus dezagun bi egoera desberdin.

a) Demagun ganbio-letran irregularitate bat ageri da, bistakoa dena, adibidez pertsona bat da igorpendua eta bere ordezkaria onartzailea, orduan igorpendua ez den onartzaileari ordainketa galdatuz gero, honek irregulartasun dokumentala alegatuko du, bere onarpenaren deuseztasuna oinarritzeko. Onarpena soilik igorpenduak egin dezake (LCCh 29.I art.). Aldiz, igorpenduari galdatu ezker, esango digu berak ez duela ezer onartu eta ordezkariaren sinadurak (onartzaileak) ez duela bera ganbiarioki obligatzen. Dokumentuan desadostasun formal bat dago, baina erabili al daiteke obligazio ganbiarioa salbuesteko? Ez erabat, agian gerta daitekelako *contemplatio domini* tazitua izatea, letratik ez erauztea baina bai egitatetatik. Orduan igorpendua izango da onartzaile. Formalki pertsona berbera ez bada ere (ez dago berdintasun formalik), materialki bada (berdintasun materiala badago). *Contemplatio domini* letran ageri ez denez, edukitzaileari dagokio frogatzea ordezkariak ahalordea bazuela eta ordezkatuaren izenean jarduten ari zela (hau da, berdintasun materiala).

b) Demagun dokumentuan ez dagoela ageriko irregularitaterik, adibidez igortzailearen edo abalemailearen sinadura pertsonala ageri dela, orduan erantzule ganbiarioa sinatzailea bera izango litzateke. Dena den, batzuren iritziz, sinatzailea libratu ahal izango da daiteke *contemplatio domini* tazitua berak frogatuz gero.

*Contemplatio domini* inkompletua agertzen direneko kasuak errazagoak dira. Hauetan badago ordezkapenaren aztarnaren bat dokumentuan, agerian, bistan, orduan *dominus*-ak ordezkariak egindakoa onartu behar du.

#### 4. GANBIO-LETRA IGORTZEA, FORMAZKO UKANBEHARRAK

Igortzaileak hartzen duen obligazioa da funtsezko deklarazio ganbiaria (LCCh 1.art.). Igortzaileak onarpena eta ordainketa bermatzen ditu. Onarpenaren bermea salbuetsi dezake (*'onarpenagatik nire erantzukizunik gabe'* klausularekin) baina ordainketaren bermea indargabetzen duen klausula oro ez idatzizat hartuko da (LCCh 11.art.).

Igortzailea da igorpenduari ordaintzeko agindua ematen diona baina, era berean, bera da ere ganbio-letraren ordainketa bermatzen duena. Beraz, igorpenduak ordaintzen ez badu, igortzailea izango da ordainketaren erantzule, eta ordainketa honen bermea ukatzen duen edozein klausula eraginkortasunik gabea kontsideratzen da.

LCCh 1.artikuluak, ganbio letraren ezinbesteko ukanbeharrak jasotzen ditu eta honako hauek dira, artikulua numerazio berbera jarraituz:

1. Ganbio-letraren deitura, titulu bertan ezarrita eta bere idazketarako erabili den hizkuntzean adierazita. Deitura honen helburua, sinatzaileari agiri berezi baten aurrean dagoela ohartaraztea da. Ganbio-letrak, efektu oso zorrotzak dituen agiria da eta sinatzaileak ondo jakin behar du ganbio-letra dela sinatzen duen agiria. Erabilitako hizkuntzari dagokionez, hemen bi hizkuntza ofizial ditugunez, ganbio-letrak elebidunak dira.

2. Diru-kopuru zehatza ordaintzeko mandatu soila. *Mandatura* aipatzen den arren horrek ez du esan nahi mandatu-kontratu baten aurrean gaudenik. Egokiagoa litzateke *agindua* esatea. Igortzaileak igorpenduari ganbio-letra ordaintzeko agindua ematen dio. Ordainketa hori, euro edo kotizazio ofizialean onartutako moneta atzeritarren bidez egin daiteke, kopuruaren alboan moneta adieraziaz. Honen inguruan gerta daiteke diru-kopurua hitzez eta zenbakiz idatzirik egotea eta bietan agertutako zenbatekoak desberdinak izatea. Hala bada, hitzez idatzitakoa izango da balioko duena ( LCCh 7. Art.).

3. Ordaindu behar duenaren izena, igorpendua deiturikoa.

4. Muga-egunaren adierazpena. Azaltzen ez bada, ganbio-letra erakusterakoan ordaindu beharrekotzat hartuko da (LCCh 2.a art.). Mugaeguna zein modutan ezar daiteken LCCh 38. artikulua adierazten du. Ezar daiteke: data finkoa, data batetatik aurrerako epea, erakusterakoan ordaindu beharrekoa dela ala erakusten denetik epe bat dagoela.

5. Ordainketa-lekua. Adierazten ez bada, igorpenduaren izenaren alboan azaltzen den lekua izango da. Aldi berean, leku hau igorpenduaren helbidea ere izango da (LCCh 2.b art.). Posible da ordainketa-lekua hirugarren baten helbidea izatea (LCCh 5.art.), adibidez kreditu-erakunde batena. Kasu horretan, ordainketa helbideratze bankario bidez egingo da.

6. Ordaindu behar zaion pertsonaren izena edo *noren agindura* egin behar denenaren izena. Pertsona hau letraren *hartaile* da eta, adierazten ez bada, LCCh 2.artikulu medio, agiria ez da ganbio-letra izango. Ondorio gogor hau saihestu nahian, doktrinako autoreren batek zera proposatzen du: endosurik egin bada, lehen endosugilea hartaile dela uste izatea. Honela, ganbio-letra bertatik jakin dezakegu hartaile nor den. Ganbio-letra berez, *agindurako titulua* da (*título a la orden*). Honek esan nahi du kreditu-eskubidea endosu bidez transmitituko dela. Ondorioz, endosu bidezko transmisioa eragotzi nahi badugu, '*agindura ez*' (*no a la orden*) klausula ipini beharko dugu ganbio-letran.

7. Letra igortzen deneko data eta lekua. Agertzen ez bada, igorpen-lekutzat igortzailearen alboan agertzen den helbidea hartuko da (LCCh 2.c art.)

8. Ganbio-letra igortzen duen pertsonaren izena, *igortzaile* diturikoa. Igortzailearen sinadura da ukanbehar garrantzitsuena, hau gabe ez bait da ganbio-letrarik sortzen. Sinadura hori da ganbio-letraren itxura juridikoaren sortzailea.

LCCh 1. artikulua azaltzen dizkigu ganbio-letraren ukanbeharrak eta hauetakoren bat betetzen ez bada, agiria ez da ganbio-letra izango, 2. artikulua jasotzen duenaren arabera osatzerik ez badago behintzat. Gero, ganbio-letran bestelako aipamen edo klausula batzu ager daitezke. Adibidez: helbideratze klausula (LCCh 5. art.); '*Onarpenagatik nire erantzukizunik gabe*' (*'sin mi responsabilidad por la aceptación'*) (LCCh 11.art.); '*onarpenarekin*' (*'contra aceptación'*), igortzaileak onarpenerako aurkezpena egitea

derrigortzeko (LCCh 26.I art.); ‘onarpenik ez’ (*no aceptable*), igortzaileak onarpenerako aurkezpena egitea debekatzeko (LCCh 26.II art.); ‘agindura ez’ (*no a la orden*), igortzaileak ezar dezake ganbio-letraren transmisioak kreditu-lagapenaren efektuak izateko (LCCh 14.II art.); ‘kobrantzarako’, ‘kobzurako’, ‘ahalordez’, endosugileak ezar dezake kobrua egingo duen ahalordetu bat izendatzeko (LCCh 21. art.); ‘nire erantzukizunik gabe’ endosugileak ezarri ezkerero, ez ditu onarpena eta ordainketa bermatuko (LCCh 18.I art.); ‘endosu berririk ez’ (*sin nuevo endoso*) ezar dezake endosugileak (LCCh 18.II art.); ‘gasturik gabe’, ‘protestorik gabe’ (*devolución sin gastos*, ‘sin protesto’) (LCCh 26.I art.); ‘horniduraren lagapena’ (*cesión de la provisión*) (LCCh 69. art.); ‘Interbentzioz’ (*por intervención*), klausula honekin igortzaileak, endosatzaileak edo abalemaileak, letra ordaindu edo onartuko duen pertsona bat izandatu dezakete, beharrezkoa gertatzen denean (LCCh 70. art.).

Beraz, LCCh 1. artikuluko ukanbeharrak betetzen dituen edozein agiri ganbio-letra izango da. Dena den, ganbio-letra modelo ofizialak daude paper tinbratuan, ukanbehar guzti hauek dituztenak, formatu bateratu batekin. Estatuan formato hau 1999.06.30.ko Ordena Ministerial baten bidez ezarrita dago (Ik. *Real Decreto Legislativo 1/1993, de 24 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados*. Bertan, ganbio-letra ere zergapean dagoela adierzaten da eta dokumentua tinbre-zerga bidez igorriko dela, 37. Art.) Lurralde Historikoek zergak arautzeko eskumena dutenez, bakoitzak badu honen inguruko bere Arau Forala. (Ik. Gipuzkoako Arau Forala 18/1987 Abenduaren 30.ekoa, 34. art.). Ganbio-letraren kopuruaren arabera zenbateko tinbrea dagokion ezartzen da arau hauetan. Ganbio-letrak igortzailearen helbideari dagokion lurraldeko tinbrea eraman behar du.

Ukanbehar hori betetzen ez bada, hau da, ganbio-letra tinbrerik gabe edo dagokiona baino tinbre txikiagoarekin igortzen bada, zein da ondorioa? Lehen letrak bere eraginkortasun exekutiboa galtzen zuen, prozesuari zegokion santzioa zen, judizio exekutibora jotzeko ezintasuna. Ondorioz judizio deklaratorik jo beharra zegoen. Baina 2000 urteko LEC ondoren, judizio ganbiario berezia ezarri zen judizio deklaratorik eta exekutibo arteko bereizketarik gabe (LEC 819 art. e.o.). Gaur egun tinbre desegokiaren ondorio prozesalei buruzko eztabaida dago doktrinan eta jurisprudenzian.

## 5. GANBIO-LETRA IGORTZEAREN INGURUKO GORABEHERAK

Ikusi ditugu ganbio-letra igortzerakoan bete beharko diren formazko ukanbeharrak. Honen inguruan praktikan egoera desberdinak izaten dira. Posible da lehenengo funtsezko ukanbeharrak bete eta gero letra sinatzea edo lehenengo letra sinatu eta gero ukanbeharrak betetzea. Kasu hauetan gerta daitezken gorabeherak aipatuko ditugu.

### 5.1. Letra informala, abusuzko osaketa eta osaketa arbitrarioa

Kontuan izan behar dugu batetik, obligazio ganbiarioak sinatzerakoan sortzen direla eta, bestetik, sistema ganbiarioan formaltasunek duten zorroztasuna letraren deuseztasuna medio (LCCh 1 eta 2. art.). Baina, letraren derrigorrezko ukanbeharrak (zenbatekoa, igortzailea, igorpendua, hartzailea, e.a.) noizko izatea galdatzen da? Igortzaileak ganbio-letra sinatzen duen unean? muga-egunean? ala letran adierazitako kreditu-eskubideaz (judizialki nahiz extrajudizialki) baliatzeko momentuan? Azken haiu da erantzuna, baina honen inguruan supostu desberdinak aurki ditzakegu.

#### ***Letra informala***

Eskubideaz baliatzeko momentuan, LCCh 1. artikuluko ukanbeharrak ez badira erabat bete, letran jasotako obligazio ganbiario guztiak deusezak izango dira (LCCh 2. Art.). Beste era batetan esanda, (*exceptio*) salbuespenen ikuspegitik begiratuta, letraren deuseztasuna *erga omnes* aurka jarri ahal izango da, edozein zordunek edozein edukitzailereren aurka. Hau salbuespenen dokumentala da, itxura juridikoan oinarri duena (LCCh 67.II.2 art.). Letraren edukitzaileak kobratu nahi badu, datu guztiak betetezeaz arduratuko behar du.

Demagun horietako formaltasunen bat falta dela baina formaltasun hori dokumentu bertako daturen batekin osa daitekela. Kasu horretan letra osatzea posible bada, negozioen kontserbazio-printzipioari so eginez, osatu egingo da eta ez utzi deuseza izan dadin. Malgutasun maila bat onartzen da hutsuneen integrazioan, hau da, autointegrazioa, hutsuneak letra barruko datuekin betetzea. Adibidez, ganbio-letran hartzailerik ez bada da izendatu, baina, lehen endosugilearen izena eta sinadura ageri badira, letra bertatik erauzten da hartzailea endosugilea bera izan dela. Adibidez, letraren aurrekaldean

igortzailearen sinadura falta da, baina atzekaldean endosugile modura sinatu badu, letra baliozkoa da autointegrazioa medio.

### **Letraren abusuzko osaketa**

Batzutan ganbio-letra nahita 'zuriz' igorri eta sinatzen da, dagozkion ukanbeharrak bete gabe. Baina sinatzaileak zurizko ganbio-letra eskuratzen duenarekin osatzeko ituna egiten du eta eskubide ganbiarioaz baliatzeko momentua iristerako LCCh 1.artikuluko ukanbehar formal guziak beteta egongo dira. Kasu honen berezitasuna da letra ez duela haseran sinatzaileak berak bete. Beranduago osatu du berak baimendutako beste pertsona batek, bien artean itundutako baldintzekin. Baimena inplizitua edo explizitua izan daiteke eta ematen diren jarraipideak izan daitezke zehatzak edo zehaztugabeak.

Gauza da, baimena (obligatzeko borondatea, adostasuna) eta ituna dituenek, zurizko letrak erabateko balioa duela, hau da,osatzen denean bertan jasotako deklarazio ganbiario guziak baliozkoak izango direla, nahiz eta titulua bete aurretik jarritakoak izan. Horretarako gutxienezko ukanbeharrak dira sinaduraren bat agertzea (igortzailearena, onartzailearena) eta ganbio-letra denaren adierazpena izatea.

Baina gerta daiteke igortzerakoan osatu gabeko ganbio-letra itundutakoa errespetatu gabe osatzea. Orduan letraren osaketarako ituna ez betetzea edo abusuzko osaketa egin izatea ezin da edukitzailearen aurka jarri, honek, ganbio-letra fede txarrez edo erru astunez eskuratu ez badu behintzat (LCCh 12. art.) Salbuespenen (*exceptio*) hau aztertuko dugu ondoren.

*Inter partes* harremanetan entrega-kontratua eduki behar da kontuan. Letra osatzeko akordioaren jarraipideak bete ez izana *inter partes* aurka jarri ahal izango da. Zordunak salbuespenen (*exceptio*) hau aurka jarri ahal izateko abusuzko osaketa jazo behar da eta abusuzko osaketa gertatuta ere, zordunak ezin du obligazio ganbiarioaren deuseztasunik eskatu, osaketa onartu zueneko baldintzapean obligatua geratzen bait da. Ordainketa dagokion eran modulatu ahal izango du. Baina *inter tertios* egoera desberdina da. LCCh 1.artikuluko ukanbeharrak mantentzen dira indarrean, hirugarrenak ez bait du entrega-kontratua ezagutzen. Abususko osaketa ezin zaio hirugarrenari aurka jarri, bera ez bait da osaketa horren egilea, osaketarekiko arrotza da. Dena den, arau

honek badu salbuespena. Hirugarrenaren aurka alegatu ahal izango da honek letra fede txarrez edo erru astunez eskuratu baldin badu.

### **Letraren osaketa arbitrarioa**

Supostu hau ez da zurizko letra, ez eta informala ere. Oraingo honetan letra igortzerakoan osagabea izan da eta ez dago osaketarako itunik. Hala ere, mugaeguna iristerakoa letra erabat osatuta agertzen zaigu. Norbaitek formaltasun guziak bete ditu arbitrarioki, hemen ez dago zordunaren borondaterik, zordunak ez du inongo akordiorik egin, ez du bere borondaterik adierazi, baina norbaitek letra bete egin du. Pentsa dezagun adibidez, sinatutako letra bat galdu egin delako gertatu dela hau guztia. Letra baliozkoa al da? Letra honen itxura juridikoa erabat erregularra da, behinik behin. Zordunak zein salbuespen (*exceptio*) jarri ahal izango du orduan?

*Inter partes* harremanetan entrega-kontratua eduki behar dugu kontuan. Hemen ez da halako harremanik izan, beraz ez da obligaziorik sortu. Ez da baliozko entregarik izan. *Inter tertios*, aldiz, egoera bestelakoa da. Legean ez dago supostu honetarako araurik eta ondorioz doktrinan iritzi desberdinak ageri dira. Batzuk analogiaz LCCh 93. artikulua, faltsifikazioari buruzkoa, aplikatzea proposatzen dute. Doktrinaren korrente honen iritiz, ganbio-letraren testua 'aldatu' egin dela uler daiteke, beraz ondorengoko sinatzaileek 'aldatutako' textuaren arabera obligatuko dira eta aurreko sinatzaileek, berriz, jatorrizko textuaren arabera. Faltsifikazioaren (*exceptio*) salbuespena *inter tertios* jarri ahal izango luke zordunak bere ordainketa modulatzeko eta, kasu honetan, ordainketa ekiditeko. Baina beste batzuren iritiz letra honen itxura juridikoa erregularra da erabat eta egozgarria zaio sinatzaileari. Beraz ezingo du salbuespenik jarri. Faltsifikazioaren analogia aplikatzea ez litzateke bidezkoa. Gauza da, faltsifikazioaren arriskua beti dagoela eta sinatzaileak ezin duela arrisku hori kontrolatu. Baina sinatzaileak osaketa arbitrarioaren arriskua kontrola dezake, kontrolatu beharko luke, letra behar bezala osatuaz sinatu aurretik. Pertsona baten arduragabekeriagatik jazo izan bada egoera hau, pertsona horri soilik egotzi behar zaizkio osaketa arbitrarioaren ondorioak, bera izan bait da oker horren arduradun bakarra. Beraz, *inter tertios* salbuespen hau fede txarreko hirugarrenari bakarrik jarri ahal izango zaio.



## 5.2. Faltsutasuna eta faltsifikazioa

‘Faltsutasuna’ sinadura baten itxura egitea da, asmatuaz edo imitatuaz. Ganbio-letraren itxura ezin zaio sinadurak adierazten duen subjektuari egotzi, baina fede oneko hirugarren bat dugu itxura erregularra duen letran konfidatu duena. Hemen egozgarritasunezko salbuespen baten aurrean gaude (LCCh 67.II.1 art.). Sinaduraren faltsutasuna *erga omnes* aurka jar dezake, sinadura faltsutu izan zaion subjektuak (LCCh 8.art.). Fede oneko hirugarrenaren aurrean itxura juridikoaren sortzaileak erantzun beharko du, hau da faltsutzaileak, berari egotziko zaio obligazio ganbiarioa (LCCh 10.art., aplikazio analogikoa).

Batzutan gertatzen da ‘faltsutzaileak’ beste izen batekin sinatzen duela, horretarako baimendua izan delako edo hala agindu zaiolako, ahalordez sinatu beharrean. Orduan agindu edo baimen-emate horrek sinadura agindu-emaileari egozgarri izatea bihurtzen du (KZ 1259.II art.). Gainera, letra eskuratzen duenak sinadura faltsutua izan zaionari galdetzen badio ea titulua behar bezala dagoen eta honek baiezkoa erantzuten badu, baiezko erantzunak egozgarritasunezko lotura ezartzeko balio digu (lehen ez genuena) eta ondorioz, erantzukizun ganbiarioa ezartzea posible da. Azalpenaren oinarria KZ 1259.II.artikuluari dago. Egintza baten baimentzeak edo berresteak *dominus* egintzari lotzen du.

‘Faltsifikazioa’ berriz, ganbio-letraren textuaren aldatzea da. Orduan ondorengoko sinatzaileek aldatutako textuaren arabera obligazioa hartzen dute eta aurreko sinatzaileek jatorrizko textuaren arabera (LCCh 93.art.). Textua aldatu izanaren salbuespena jar dezake *erga omnes* aldaketa gertatu aurretik letra sinatu izan duen edonork. Hauei ezin zaie beste itxura juridiko bat sortu izanik egotzi. Hauek letraren autore dira sinatu izanagatik, baina sinatzaileak ezin du faltsifikazioaren arriskua dominatu, ez da arrisku berezi bat, trafikoko arrisku orokorra baizik. Ondorioz, letra falsifikatuaren sinatzaileak ez dira inongo erantzukizunik gabe geratzen, sinatutako baldintzen arabera erantzukizuna izango dute eta ondorengo sinatzaileek, aldatutako textuaren arabera obligazioa hartzen dute.

Hala ere komeni da sinatzaileak letra falsifikatua izateko egoera aproposa sortu ote duen aztertzea. Demagun, adibidez, letrako kopurua zenbakitan jarri duela baina hizkitan ez, edo ta hutsuneak utzi dituela kopuruaren inguruan. Bere

jarrerarekin trafikoan orokorra den arriskua areagotu egin du, oinarrizko arretazko neurririk hartu ez duelako. Batzuren ustez, arrisku hori dominatzea bere esku zegoenez, erantzukizun ganbiarioa du, itxura juridikoa berari egotzi ahal izango zaio. Beste batzuren ustez, berriz, erantzukizun hau extraganbiarioa da.

Amaitzeko zenbait oharpen egin behar dira. Batetik, kaltegarriak ez diren textu-aldaketak ez dira supostu honetan sartzen, esate baterako igorpenduaren helbidea zuzentzea. Bestetik, textuaren aldaketek 1.artikuluko funtsezko datuak ezagutezinak bihurtzen badituzte, gertakizun hau falsifikazioa baino gehiago dokumentuaren deuseztasuneko kasua izango da. Azkenik esan, falsifikazioaren froga auziperatuari dagokiola (KZ 1225.art.), printzipioz bere sinaduraren autentikotasunak harek adierazitako deklarazioa ere autentikoa dela suposarazten bait du. Gero, falsifikazioa gertatu dela frogatu ondoren edukitzaileari/ auzijartzaileari dagokio frogatzea zordunak letra aldatua izan ondoren sinatu duela.

### **5.3. Ganbio-letraren anizketa eta beste dokumentu batzu**

#### ***Bikoiztuak***

Merkataritzako praxian antzinatek onartu izan da ganbio-letraren ale bikoiztuak igortzea. Bikoiztuen helburuak bi dira: batetik, letrak onarpenarpena lortu bitartean zirkulatu ahal izatea eta, bestetik, titulua galduz gero kredituaren iraungipena ekiditea. Gaur egun, instrumentu honen erabilpena urria da, hala ere, deskontuzko kontratuak egiteko erabilgarria izan daiteke. Honela, ale bat onarpenerako bidaltzen den bitartean, beste alea deskontu-kontratua lortzeko erabil daiteke.

Bikoiztua, ganbio-letra berberaren benetako alea da, beraz, edozein motako ganbio-deklarazioak jaso ditzake, bikoiztu guztiek ganbio-letra bakar bat osatzen dute eta (LCCh 79-81. Art.). Autentikoak izan behar dute obligatu ganbiario bakoitzaren sinadura autentikoa jaso behar dute. Ale guziak mugaegun aurretik jaulki behar dira eta guztien edukiak berdina izan behar du (ez berdintsua). Badago salbuespen bat eta da onarpena, ale bakar batetan egiten dela soilik. Ale guztiak zenbakituak egon behar dute eta igorritako ale-kopurua ere adierazita. Adierazpen hori ezean, ale bakoitza ganbio-letra desberdin bat kontsideratuko da. Igortzaileak jaulkitzen ditu ale guziak. Berak

bikoiztuak igortzea galerazi dezake *'ale bakarra'* (*'ejemplar único'*) klausula ezarriaz. Letra *'ale bakarra'* ez bada, edozein edukitzailek galda dezake bokiztu bate jaulkitzea. Ale guziek ganbio-letra bakar bat osatzen dutenez, kreditu-eskubidea bat da eta pertsona bakar bati dagokio, beraz ale guziak berari entregatzea eskatzeko eskubidea du, batez ere onarpenarena (LCCh 81.I.art.). Ale horietako bat ordaintzen denean besteengandik sortutako eskubide guztiak iraungi egiten dira, ale baten ordainketagatik balioa galdu dutenaren oharra ezarri ez bada ere. Onartzaileak onarpena ezarri duen ale bakoitzaren gaineko erantzukizuna hartzen du. Adibidez, igorpenduak ale bat onartu du eta (onartugabeko) beste bat ordaindu du. Onartutako alea ez bazaio itzuli, bera izango da onartutako alearen erantzule. Ondorio hau ez da onargarria ordainketa egin izan dela ezagutzen duten hirugarrenentzat. Kasu horretan onartzaileak fede txarraren salbuespena jar dezake.

### ***Kopiak***

Kopia ez da ganbio-letraren benetazko alea, originalaren erreprodukzio zehatza bizik, dena den, endosua edo abala jaso ditzake balio guztiarekin (LCCh 82. art.). Bikoiztuaren antzera, kopiak ganbio-letraren zirkulazioa laguntzen du eta bitartean benetazko agiria onarpena lortzera bidal daiteke. Baina desberdina da bikoiztuarekiko: ez dauka firma autentikorik; kopian ezin daiteke onarpenik jaso, bai ordea, bestelako ganbio-deklarazioak; edozein edukitzailek egin dezake kopia bat, bikoiztua ordea, igortzaileak baino ezin dezake egin; *'kopiaren amaiera'* (*'fin de copia'*) kopia non amaitzen den eta originala non hasten den jakiteko eta originala noren esku dagoen jarri behar da.

### ***Eranskina***

LCCh 13. artikuluan dator bere arauketa. Ganbio-letraren adierazpen edo deklarazio ugariak hala galdatzen dutenean, ganbio-letrari eranskina gehitzea posible da. Eranskinean, Legean aipatutako adierazpen guztiak egin daitezke, 1. artikuluan jasotakoak ezik, azkeneko hauek derrigorrez ganbio-letra bertan egin behar dira.

### ***Abisua***

Ganbio-letra kreditu-erakunde baten eskutan baldin badago, ordainketarako aurkezpena igorpenduari bidalitako abisu baten bidez egin daiteke. Abisu hori,

mugaeguna baino lehenago jaso behar du igorpenduak, ordainketarako aginduak eman ditzan, eta bertan ganbio-letraren datu guziak jaso behar dira. (LCCh 43.III. art.)

#### **5.4. Amortizazioa**

Amortizazioak, adierazten digu ganbio-letra funtsezkoa dela, bertatik sortzen diren eskubideak erabili ahal izateko. Ganbio-letratik sortutako eskubideen tituludunak izan arren, ezin ditugu eskubide horiek erabili agiria gure eskutan ez badaukagu. Ganbio-letra galtzen bada, eta igorpenduak ordainketa egiten badu, letra hartatik sortutako eskubidearen tituludunak eskubidea gal dezake. Eskubidea, tituluduna ez den fede txar edo oneko beste pertsona batek erabil ahal izango du. Hau da, agiriaren galtzea, lapurreta edo deusestapenak ez du ordainketarako eskubidea iraungitzen. Bi gauza beraz, kontuan eduki beharrekoak: agiria beharrezkoa dela eskubidea egikaritzeko eta agiria galtze hutsak ez duela eskubidea desagertarazten.

LCCh 84-87 artikulutan arautzen da edukitza galdu duen edukitzaile legitimoaren babesa. Letraren edukitza galdu duenak bere eskubidea babesteko prozedura has dezake eta epaileari eskatu: igorpenduak ez dezala ganbio-letra ordaindu (ordainketaren interdikzioa); epai baten bidez, ganbio-letra amortizatuta deklaratu dadila, hau da, ganbio-letrak eraginkortasuna gal dezala eta bere titularitatea onetsi eta ganbio-letraren bikoiztua igorpendu dezala. Azken hau, ganbio-letraren mugaeguna ailegatu ez bada bakarrik eska daiteke.